

2024KO OTXOMAIOTAN SALMENTA IBILTARIAREN SEKTOREKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN BERARIAZKO OINARRIAK.

LEHENENGOA.- Dirulaguntzaren helburua

Oinarri hauek honako hauxe dute helburu: Urduñako Udalak 2024ko Otxomaioetan garatutako salmenta ibiltariaren sektoreari laguntza ekonomikoak konkurrentzia bakunaren araubidepean emateko prozesua arautzea.

Laguntza hauek honako hauxe dute helburu: horrelako merkataritzaren iraupena sustatzea, autoenpleguari eustea eta, horretarako, Otxomaioetan bide publikoa okupatzeagatik sortutako gastuen zati bat ordaintzea.

Laguntzak esleitzeko, ezinbesteko eta nahitaezko baldintza izango da aurrekontu erabilgarria egotea.

BIGARRENA.- Ezarri beharreko arauak

Oinarri eta deialdi hauek honako arau hauetan xedatutakoaren arabera arautuko dira:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrari buruzko Araudia onartzen duena.
- Onartutako eta 2011ko irailaren 21ean 181. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Urduñako Udaleko Dirulaguntzak Emateko Oinarri Orokorak arautzen dituen Ordenantza.
- Salmenta Ibiltaria arautzen duen Ordenantza.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta bere izaeragatik ezarri litekeen beste edozein xedapen arautzaile.

Dirulaguntza hauek kudeatzeko orduan, honako printzipio hauek hartuko dira kontuan: publikotasuna, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta ez-bereizkeria, baita helburuak betearazteko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eragingarritasuna ere.

BIGARRENA.- Aurrekontuaren kreditua eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Honako kontu-sail honetan, badago deialdi honen ondorioz sortutako gastuari aurre egiteko beste krediturik: 04 3300 47102. Edonola ere, kreditu erabilgarria handitu ahal izango da kasuan kasuko aurrekontuaren ezarpenean.

Eskabide bakoitzari esleitu ahal zaion zenbatekoa 100 €-koa izango da, betiere, beharrezko agiriak aurkezten badira eta oinarri hauetako eskakizunak betetzen badira.

Eskabideen kopuruak aurrekontu-kreditu guztia gainditzen badu, eskabide guztien artean hainbanatuko da.

Eskabide guztiei aurre egindakoan oraindik ere soberako aurrekontu-zuzkidurarik balego, Urduñako Udalak zenbateko hori banatu ahal izango du. Horretarako, proportzioan handituko du eskabide guztiei esleitu ahal zaien ehunekoa, eta gehieneko muga %60koa izango da eskabideko.

Eskabide bat baino ezin izango da aurkeztu jarduerako eta eskatzaileko. Pertsona juridikoak, ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak izanez gero, ez da erkideek edo bazkideek banan-banan aurkeztutako eskabiderik onartuko.

HIRUGARRENA.- Onuradunak eta esleipenerako eskakizunak

Laguntza hauek eskatu ahal izango dituzte 2024ko Otxomaioetan Urduñako Udalak salmenta ibiltarirako emandako baimena izan dutenak eta honako haxe ordaindu dutenak: 2024ko ekitaldian herriko jai tradizionaletan erabilera publikoko lursailean jartzen diren saltoki ibiltaritarako, barraketarako, salmenta-etxoletarako, txosnetarako, ikuskizunetarako edo jolasetarako tasa; betiere, hori guztia eskabideak aurkezteko epean betetzen badute.

Horrez gain, onuradunek honako haxe ere bete beharko dute:

- Ez dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. eta 13.3. artikuluetan zehaztutako inguruabar bakar baten eraginpean ere egon beharko, eta, batez ere, euren zerga-betebeharrak egunean eduki beharko dituzte Estatuko Ogasunarekin (AEAT) eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin (GSDN).
- Ez dute inolako zorrik izan beharko ez Bizkaiko Ogasunarekin ez Urduñako Udalarekin. Horri dagokionez, eskabidean bertan, behar besteko baimena emango diote udalari, hori horrelaxe dela ofizioz egiaztatu dezan. Bestela, interesdunek eurek aurkeztu beharko dute.
- Ez dute ebazpen administratiboaren edo epai judizial irmoaren arabera inolako zehapenik eduki beharko honako arlo hauetako hutsegite larriagatik edo oso larriagatik: laneko arriskuen prebentzioa, berdintasuna edo genero-indarkeria.
- Honako hauexetan alta emanda egon beharko dira: Salmenta Ibiltarirako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga edota Langile Autonomoen Araubide Berezia, Nekazaritzako Norberaren Konturako Langileentzako Sistema Berezia edo kasuan kasuko Aurreikuspen Mutualitatea, hala badagokio.

Eskakizun hauek eskabidea aurkezten denetik harik eta dirulaguntza ordaintzen den arte, hala badagokio, bete beharko dira.

BOSGARRENA.- Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea

Eskabidea Urduñako Udaleko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da (www.urduna.com / Izapideak); edo, paperean, Udaleko Sarrera Erregistroan (Kale zaharra 2-4), 9:00etatik 13:30era, astelehenetik ostiralera.



Era berean, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan legearen arabera aurreikusitako gainerako lekuetan ere aurkeztu ahal izango da eskabidea.

Interesdunek 30 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dituzte euren eskabideak, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko hurrengo egunetik hasita, eta epe hori hurrengo lehenengo lanegunera arte luzatuko da, azken eguna larunbata edo jaieguna denean.

Eskabideak aurrean adierazitako epetik kanpo aurkezten badira, ez dira inolaz ere onartuko, eta ez da beste izapiderik egingo. Dena dela, aldeztu aurretik ebatzi beharko da, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzak kontuan hartuta.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera:

- Eskabide normalizatuaren eredua. Jarduketa administratiboak ordezkariaren bidez egiten badira, eskabidea egiteko egiaztagiria aurkeztuko da.
- Banku-erakundeak zigilatutako eta sinatutako Urduñako Udaleko hirugarrenen altarako modeloa.
- Eskatzailearen identifikazio-datuak:
 - Pertsona fisikoentzat: Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo bizileku-txartela.
 - Pertsona juridikoentzat: Identifikazio Fiskalerako Kodearen txartela (IFK), sozietatearen eraketaren eskritura, legezko ordezkariaren ahala eta Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo bizileku-txartela.
- 2024ko Otxomaioetan salmenta ibiltarirako emandako udal-baimenaren egiaztagiria edo administrazioari kontsulta egiteko emandako baimena.
- 2024ko ekitaldian herriko jai tradizionaletan erabilera publikoko lursailean jartzen diren saltoki ibiltarietarako, barraketarako, salmenta-etxoletarako, txosnetarako, ikuskizunetarako edo jolasetarako tasaren ordainketaren egiaztagiria edo administrazioari kontsulta egiteko emandako baimena.
- Autonomia-erkidegoko, estatuko eta udaleko administrazioarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen agiria. Laguntza 3.000 €-tik beherakoa denez, Gizarte Segurantzarekin, Estatuko Zerga Agentziarekin eta Bizkaiko Ogasunarekin egunean daudela azaltzeko erantzukizunpeko adierazpena.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda daudela adierazten duen ziurtagiria.

Kasu zehatz bakoitza kontuan hartuta, Urduñako Udalak eskatzaileari eskatu ahal izango dio bere ustez beharrezkoa den beste edozein agiri osagarri.

Hala badagokio, eskatzaileak derrigorrean aurkeztu beharko du, bere eskabidea izapidetzea nahi badu.

Eskabidea behar bezala aurkeztuko ez balitz edo daturen bat edo aipatutako agiriren bat falta izango balitz, pertsona edo erakunde eskatzaileari eskatuko zaio gabezia horiek 10



laneguneko epean zuzentzeko. Gainera, jakinarazi ere egingo zaio hori egin ezean, eskabidea ezetsiko dela Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan adierazitakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

Norberaren Datuen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko asmoz, eskatzaileei jakinarazten zaie aipatutako agirien osagai moduan aurkeztutako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko urteko dirulaguntza emateko prozeduran baino ez direla erabiliko.

SEIGARRENA.- Prozeduraren izapideak, antolakuntza eta ebazpena

Dirulaguntza hauek esleitzeko prozedura konkurrentzia bakunekoa izango da harik eta helburu horretarako zuzkitutako kreditua amaitu arte.

Betetzen direnean, eskabideak banan-banan izapidetuko dira eskaera-hurrenkera zorrotzaren arabera, haiei aurre egiteko kreditua dagoen bitartean.

Eskabideak aztertutakoan, txosten teknikoa idatziko da, eta osteko ebazpen-proposamenaren oinarria izango da.

Kultura Arloko zinegotziak txosten hori onartu beharko du.

Eskabideak ebazteko prozedura honako hauexetan araututakoarekin bat etorriko da: Urduñako Udaleko Dirulaguntzak Emateko Oinarri Orokorrak arautzen dituen Ordenantza, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, lege hori garatzen duten arauak eta horrekin bat datozen beste lege-xedapen batzuk.

Honako hauexek osatuko dute Balioespen Batzordea: Kulturako zinegotzia, Kultura Arloko teknikaria edo organo esleipengileak beharrezkotzat jotako beste langile batzuk.

Eskabideak deialdi honetan zehaztutako balioespen-irizpideen arabera ebaluatu ondoren, Balioespen Batzordeak txostena egingo du. Bertan, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko da, eta behar den moduko ebazpen-proposamena aurkeztuko da.

Alkatetza izango da prozedura ebazten duena. Ebazpenean, honako hauxe azaldu beharko da gutxienez: onuradunen zerrenda, zenbatekoak eta, ukorik egonez gero, ukapen horien behar besteko arrazoi egokiak.

Eskabideak ebazteko eta ebazpenaren berri emateko gehieneko epea sei (6) hilekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

Epe hori igarotakoan berriazko ebazpenik eta horren jakinarazpenik ez balego, eskabidea administrazioaren isiltasunagatik ezetsi dela ulertuko da. Nolanahi ere, geroago ebatzi ahal izango da berriaz.

Bide administratiboari amaiera ematen dion ebazpenaren aurkako aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Alkatetzan, jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, modu berean zenbatutako bi hileko epean.



Esleipenerako ebazpena jakinarazi osteko hurrengo egunetik hasita, onuradunek 15 egun naturaleko epea izango dute dirulaguntzari uko egiteko.

ZAZPIGARRENA.- Onuradunen betebeharrak

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan zehaztutakoak izango dira onuradunen betebeharrak.

ZORTZIGARRENA.- Bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bererako beste edozeinekin, betiere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 19.3. artikulua arabera guzti-guztien batura diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa ez bada.

BEDERATZIGARRENA.- Justifikaziorako araubidea

Egoera zehatz baterako konkurrentziaren arabera emandako laguntzak direnez, ezinbestekoa izango da esleipena egin aurretik deialdian bertan zehaztutako bitartekoen bidez egindako egiaztapenaren bitartez justifikatzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30.7. artikuluan xedatzen den bezala. Edonola ere, udalak behar beste kontrol egin ahal izango ditu egiaztapenerako, eta ausaz egin ahal izango ditu kontrol horiek.

HAMARGARRENA.- Ordaintzeko modua eta unea

Emandako laguntza ordainketa bakarrean gauzatuko da, esleipenari buruzko ebazpena jakinarazi ostean.

HAMAIKAGARRENA.- Ez-betearazpena, ezeztapena eta itzulketa

Laguntza ezeztatu egingo da, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoa zein kasuan kasuko berandutza-interesa itzuli beharko dira, laguntza ordaintzen denetik harik eta borondatez itzuli arte edo administrazioak honako kasu hauetan itzulketa bidezkoa dela erabakitzen duen arte:

- a) Dirulaguntza lortzeko orduan, horretarako eskatutako baldintzak faltsutzea edo hori eragotziko zuten baldintzak ezkutatzea.
- b) Urduñako Udalak egiaztapenerako eta kontrolerako egindako jarduketei uko egitea edo oztopoak jartzea.
- c) Esleipenerako erabakigarriak diren baldintzak zein eskakizunak eta zazpigarren oinarrian zehaztutako betebeharrak ez betetzea.
- d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitakoak.

HAMABIGARRENA.- Zehapen-araubidea

Arau-hausteen eta zehapenen araubidea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. tituluaren eta Euskadiko Administrazio Publikoen Zehapen Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen zehaztutakoa izango da.



HAMAHIRUGARRENA.- Errekurtsoen araubidea

Bide administratiboari amaiera ematen diotenez, oinarri hauek onartzeko erabakiaren eta laguntzak esleitzeko edo itzulketa ebazteko erabakien aurkako aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da jakinarazpenaren osteko hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa kontuan hartuta. Bestela, zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Soriako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legean xedatutako baldintzak eta epeak kontuan hartuta.

Kultura eta Kiroleko teknikaria